



ARDI- ETA AHUNTZ-BAZTANGA

Zer da?

- Gaixotasun birikoa da, eta ardi eta ahuntzei eragiten die soilik.
- Ez zaie gizakiei transmititzen.
- Duela gutxi agertu da Espainian, 54 urtez kasurik gabe egon ondoren.
- Gaixotasuna baieztatzeko laborategiko diagnostikoa behar da.
- Ustiatégian gaixotasuna deklaratu ondoren, ez dago tratamendurik. Animalia guztiak hil egin behar dira gaixotasuna desagerrarazteko programen bidez.

Nola transmititzen?

- Animalia osasuntsu eta infektatuen arteko kontaktu zuzenaren bidez transmititzen da, batez ere arnasaren bidez, baina baita mukosa, zauri edo urraduren bidez ere.
- Zeharkako kontaktuaren bidez (pertsonek, ibilgailu, makina, eltxo, eta abarren bitartez).
- Birusak listuaren, sudurreko eskrezioren eta eskrezi konjuntibalen, gorozkien, gernuaren eta esnearen bidez jariatzen dira, eta zenbait hilabetez izan daitezke bizigai animaliatik kanpo.
- Sintomak kutsatu eta 8 eta 13 egun artean agertu ohi dira.

Zer sintoma eragiten ditu?

- Larruazaleko erupzioak, papula formakoak (inoiz edo behin puslak). Erupzioak ultzera sortu, zornatu eta zarakartu egiten dira.
- Sukarra; gosearen eta pisuaren galera; sudur, begi eta betazaleko mukosen hantura; eta arnasteko zailtasuna.
- Hilkortasuna handia da gaixotasuna existitzen ez den eremuetan.



PREBENTZIOA ETA KONTROLA

Hauek dira prebentzio-neurri nagusiak:

1. Gaixotasuna sar dadila ekiditea.
2. Gaixotasuna goiz hautematea.
3. Hauteman ondoren, hedatu dadila saihestea.

Zaintza

- Ardiak eta ahuntzak egunero aztertzea, lesiorik duten ikusteko (gorritasunak, puntu gorriak, pusla likidodunak), bereziki ilerik gabeko lekuetan: burua, sabela, bularra, axilak, genitalak eta buztanaren azpiko eremua.
- Gaixotasunarenak izan daitezkeen sintomak agertzekotan, jakinarazpena egin behar zaio berehala dagokion foru-aldundiko abeltzaintza-zerbitzuari*.

Biosegurtasun-neurriak

- Ustiatégirako bisitak mugatzea.
- Ustiatégien artean langileak, makinak, tresnak, pentsuak, eta abar ez partekatzea.
- Ibilgailuen garbiketa eta desinfekzioa indartzea ustiatégian sartu eta bertatik irten ondoren.

Animalien mugimenduen kontrola

- Ez da gaixotasuna deklaratu den eremuetako animaliarik sartu behar.
- Animalia berriek berrogeialdia egin behar dute ustiatégian sartu aurretik.

Informazio gehiago:



www.elika.eus

* Kontaktu telefonoak:

Araba: 945 181 818

Bizkaia: 944 066 821

Gipuzkoa: 943 112 987

araba
foru aldundia
diputación foral

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

elika
Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria
Nekazaritzako Elkarriaren
Segurtasunarako
Eusko Fundazioa

NEIKER
MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE